

# Jalgi hadi plazara!

Hona hemen unitate honetan ikasitakoa praktikara eramateko ideia batzuk. Gogoratu prozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela zure euskara plazara ateratzea!

## JALGI HADI PLAZARA!

### Sarea erabilia:

- ✓ Jakin nahi al duzu nola egiten ziren erosketak aspaldi? Egin klik [esteka honetan](#), eta entzun, [ahotsa.info](#) atariko grabazio batean, nola antolatzen zen gerra aurrean denda bat. Entzun atari bereko [bideo honetan](#) zenbat denda egoten ziren herri batean. Beste emakume batek ere hitz egiten du bere garaiko dendez; entzun [hemen](#). Galde iezaiezu zure inguruko nagusiei, ea zer oroitzen duten garai bateko dendez. Jaso informazioa eta komenta iezaiezu ikaskideei.
- ✓ Badaude erosketak egiteko modu bitxiak. Ba al dakizu mendietan erdi galdurik dauden herrietan nola moldatzen diren erosketak egiteko? Irakur ezazu *Berriako* [artikulu hau](#). Ezagutzen al duzu horrelako beste kasurik? Graba ezazu azalpena audio labur batean, eta bidal iezaiezu ikaskideei, haiek jakin dezaten erosteko zer modu dauden.
- ✓ Gasteizen baditugu betiko dendak. Ezagutu nahi al duzu *Confecciones Pinedo* etxearen historia? Irakur ezazu *Berriako* [elkarrizketa hau](#). Egon al zara inoiz bertan? Komentatu ikaskideekin.
- ✓ [HemenGO SHOPPING](#) ekimena Donostiako, Gasteizko eta Bilboko merkataritza-plataformek sustatu dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta tokiko merkataritzaren garrantzia azpimarratzeko jai da. Interesatzen bazaizu, Bilbo, Donostia eta Gasteizko HemenGO SHOPPING gidak deskarga ditzakezu doan, PDF formatuan. Gida horietan, tokiko merkataritzarik jator, erakargarri eta berritzaileenari buruz beharrezkoa den informazio guztia aurkituko duzu (kokapena, sektorea, irudiak, informazio praktikoa eta abar).
- ✓ [Euskaldunon kontsumo ereduari](#) buruzko solasaldia izan dute *Hala Bedi* irratian Jone Arruabarrena eta Iñigo Cabiecesekin: euskaldunon kontsumo ereduaz mintzatu dira, kontsumitzen dugun lekuen inguruan eta kontsumitutako produktuen jatorrietan sakonduz. Hamabost minutu inguruko irratsaioa da. Entzun ondoren, idatz ezazu labur zein den zure iritzia eta eman iezaiozu irakasleari.
- ✓ [Supermerkatu kooperatibo](#) eta kolaboratiboak supermerkatu kate handien alternatiba dira. Supermerkatu handiek azalera handia behar izaten dute. Horretaz gain, askotan, haiek irekitzeko denda txikiak ixtea ekartzen du, ezinezkoa baitzaie prezioetan kate handiekin lehiatzea. Egoera horren aurrean, zenbait taldek elikadura eta ekonomia herritarren ardura bilakatu dute. Irakurri, pentsatu zein den zure iritzia gaiaren inguruan, eta azaldu hurrengo egunean klasean ikaskideei.

